



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**2015/2016 IKASTURTEAN DEBAGOIENeko**  
**MANKOMUNITATEAREN OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO**  
**ETA ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMAK ANTOLATU,**  
**KUDEATU ETA GARATZEKO**  
**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARRAK**



## **AURKIBIDEA**

### **I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK.**

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. KONTRATUAREN IRAUPENA
3. LIZITAZIO-PREZIOA
4. FINANTZAKETA
5. PREZIOAK BERRIKUSTEA
6. ORDAINTZEKO ERA
7. BEHIN-BETIKO BERMEA
8. KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA

### **II. kapitulua.- KONTRATAZIOA**

9. ESLEITZEKO PROZEDURA
10. LIZITATZAILEAK
11. DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK
12. PROPOSAMENAK AURKEZTEA
13. AGIRIEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA
14. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK
15. ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA
16. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

### **III. kapitulua.- KONTRATUA EGIKARITZEA**

17. KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK
18. DATU PERTSONALAK
19. SEGURTASUNA ETA OSASUNA
20. EUSKARA
21. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK
22. EKIPAMENDUA ETA BALIABIDE PERTSONALAK
23. BALIABIDE TEKNIKOAK
24. INSTALAZIO FINKOAK
25. BAIMENAK
26. LANEN KONTROLA
27. LANAK ONARTZEA
28. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK
29. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK
30. KONTRATAZIO-MAHAIA

**I ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA**

**II ERANSKINA: AITORPEN-EREDUA**

**III ERANSKINA: KONTRATISTAREN ESKU UTZITAKO MATERIALEN ZERRENDA**



## I. Kapituluua.- XEDAPEN OROKORRAK

### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza Agiri honen arabera zertuko den kontratuak hau izango du helburu: 2015/2016 ikasturtean Debagoieneko Mankomunitatearen Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Eskolatzeko Osagarriko Programen antolaketa, kudeaketa eta garapena, Baldintza Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako baldintzen arabera.

Enpresa esleipendunak Eskolatzeko Osagarriaren Programa ematea eta, beraz, hori antolatu, kudeatu eta garatzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte bakoitzean dagokion Programa onartzearen mende geratuko da.

### 2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena urtebetekoa izango da, 2015eko irailaren 1etik aurrera.

### 3. LIZITAZIO-PREZIOA

Kontratu honetan garatu beharreko Programa bakoitzaren lizitazio-prezioa, BEZ sartu gabe, ondoren zehaztutakoa izango da. Prezio hori hobetu egin dezakete eskaintzaileek.

#### A.- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa

Bi ataletan zatitua:

1. Zuzendaritza, administrazioa eta irakaskuntza: 258.600 €.
2. Zerbitzu, hornigai eta materialen erosketak kudeatzea: 46.600 €.

Lizitazio-prezio hau lau ikasle-talde osatzen badira bakarrik aplikatuko da.

Bestela, honelako prezio-egokitzea egingo da:

Garatu behar den Oinarrizko Lanbide Heziketako Programan aurrez ikusitako ikasle taldeak ez badira sortzen (hau da, lau ikasle talde, talde bakoitzean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak une bakoitzean ezarritako ikasle kopuru minimoarekin), eskaintzaileak 1. atalean (*Zuzendaritza, administrazioa eta irakaskuntza*) eskaintutako prezioari 0,8/4-eko murrizketa aplikatuko zaio gutxitutako talde bakoitzeko, eta 2. atalean (*Zerbitzu, hornigai eta materialen erosketak kudeatzea*) eskaintutako prezioari 0,9/4-eko murrizketa.

#### B.- Eskolatzeko Osagarriaren Programa

Programa honen lizitazio-prezioa, BEZ sartu gabe, 73.800 €koa izango da. Prezio horretan sartzen da bai zuzendaritza, administrazioa eta irakaskuntza eta bai zerbitzu, hornigai eta materialen erosketak kudeatzea.

Programa honek ez du onartuko talde bat baino gehiago sortzea.

Aurkezten diren eskaintza ekonomikoek ezingo dute zenbateko hauek gainditu.

Aurkezturiko proposamenetan sartuta egongo dira ez bakarrik kontratuaren prezioa, baita BEZa eta kontratutik ondorioztatzen diren era guztietako zergak eta gastuak ere.

#### **4. FINANTZAKETA**

Kontratu honen prezioa Mankomunitatearen Aurrekontu Orokorrean aurtengo ekitaldi ekonomikoan dauden 7090.226.324.00.61 eta 7090.226.324.0063 kontu-sail edo partidetan zordunduz finantzatuko da. Aurrekontu-gaietan eskudun den organoak konpromisoa hartzen du kontratu honek etorkizunean ukituko dituen ekitaldi guztietako aurrekontuetan ere beharrezko kredituak gordetzeko.

#### **5. ORDAINTZEKO ERA**

Prestazioa adostasunez hartu ondoren, ordainketa honela egingo da:

##### A.- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa

Zuzendaritza, administrazioa eta irakaskuntza atalari dagokion urteko kopurua hileroko ordainduko da, 12 hilerokotan, esleipendunak dagozkion fakturak aldezturik aurkeztuta.

Zerbitzu, hornigai eta materialen erosketak kudeatzeko atalari dagokion kopurua ere hileroko ordainduko da, 12 hilerokotan, esleipendunak kontzeptu honengatik egindako gastuen justifikazio-fakturak aldezturik aurkeztuta.

##### A.- Eskolatzeko Osagarriaren Programa

Urteko kopuru osoa hileroko ordainduko da, 12 hilerokotan zehar, dagozkion fakturak esleipendunak aldezturik aurkeztuta.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 216. artikuluan ezarritako epeen barruan ordainduko dira fakturak.

#### **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honetan ez da inolako prezio-berrikuspenik izango.

#### **7. BEHIN-BETIKO BERMEA**

Kontratuaren esleipenduna beharturik dago, BEZ kanpo utzita, esleipen-zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea aurkeztuta, bere gain hartutako eginbeharrak beteko dituela bermatu eta ziurtatzeko.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Berme hori aurkezteko epea hamar lanegunekoa izango da, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan egin ahal izango da.

Bermea itzultzea Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea bukatu eta esleipendunak bere kontratuzko betebeharrak guztiak bete ondoren.

### **8. KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA**

Kontratuak zerbitzuen administrazio-kontratuaren izaera izango du. Honako hauen arabera arautuko da: Administrazio Klausula Berezien Agiri hau; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrean indargabetu gabeko arauak. Era osagarrian, Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak aplikatuko dira, eta horiek egon ezean bakarrik, Zuzenbide Pribatukoak.

Kontratuaren aplikazio edo interpretazioan, berori gauzatu, aldatu, bete edo suntsiarazterakoan sortzen diren auziak Mankomunitatean eskumena duten organoek ebaztiko dituzte eta horien erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira.

Erabaki horien aurka jotzeko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzietarakoa izango da.

## **II. kapitulua.- KONTRATAZIOA**

### **9. ESLEITZEKO PROZEDURA**

Kontratu honen esleitzea PROZEDURA IREKI bidez egingo da.

### **10. ESKAINTZAILEAK**

Proposamenak pertsona natural nahiz juridikoek aurkez ditzakete, espainiar nahiz atzerriarrek, jarduteko gaitasun osoa izan, kontratatzeke debekupen erori gabeak, eta ekonomia, finantza, teknika eta lanbide arloetan beren kaudimena egiaztatzen badute.

### **11. DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK**

1. Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Enpresa elkartuek ezingo dute banakako proposamenik aurkeztu eta, hori egiten badute, ez zaizkie onartuko ez banakakoak eta ez elkartearenak.



2. Proposamenak hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira, barruan ondorengo agiriak sartuta:

## **1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

1.- 1. gutun-azalean, hauek sartuko dira:

### **a) Enpresaburuaren eta, hala balegokio, bere ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.**

Nortasuna honela egiaztatuko da:

- Enpresaburua pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztuta, horietan agertzen badira beren jardura erregulatzen duten arauak, hala balegokio, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuak, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan izanda.

Enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Batasuneko kide diren estatuetakoa kideak, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edota zinpeko adierazpena edo ziurtagiri bat aurkeztuz, arauz ezarritakoaren arabera, Europar Erkidegoan aplikatu beharreko xedapenen arabera.

Gainerako enpresaburu atzeritarrek beren estatuan dagoen Espainiaren Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo enpresaren egoitzari dagokion lurralde-eremuko Kotsuletzeko Bulegoak egindako txosten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

- Eskaintzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiria (NAN-DNI) aurkeztu behar du, edo bere estatuan dagoen baliokidea.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak izenpetzen dituztenek NANen kopia aurkeztu behar dute, baita horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon behar du.

### **b) Kontratatzeko debekurik ez duela dioen aitorten arduratsua. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituelako adierazpena ere sartu behar da aitorten honetan.**

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko agiriak behin betiko esleipena egin baino lehen aurkeztu behar ditu esleipena jasoko duen enpresaburuak.

c) Ondorengo enpresa-sailkapenaren egiaztatzea:

**U taldea, 7 azpitaldea, c) kategoria**



e) Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek **aitorpen bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz**, eta, hala balegokio, beraien atzerrian izan lezaketen foru jurisdikzionalari uko egin diotela adieraziz.

f) **Hala badagokio, posta elektronikoaren helbidea, jakinarazpenak egin ahal izateko.**

2.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratu eta Kontratisten Erregistroen Erregelamendua onartzeko otsailaren 3an eman zen 12/1998 Dekretuak arauturiko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribaturik dauden enkante-eskaintzaileek, a) eta b) ataletan eskaturiko agirien ordeztu, Erregistroaren organo arduradunak egin eta indarrean dagoen ziurtagiria aurkez dezakete, eta horrekin batera eskaintzailearen aitortzen arduratsua adieraziz ziurtagiri horretan aipatzen diren zirkunstantziak ez dutela aldaketarik izan.

**Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira edo behar bezala egiaztaturiko kopiak.**

**1. GUTUN-AZALEKO dokumentazio honen ordeztu hasieran eskaintzailearen aitortzen arduratsua egin daiteke, II. Eranskinen ereduaren arabera, bertan adieraziz, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunean, betetzen dituela Administrazioarekin kontratatzeke legezt ezarritako baldintzak. Kasu horretan, esleipen-proposamena bereganatzen duen eskaintzaileak, dagokion kontratazio-organoren aurrean, eta kontratua esleitu aurretik, eskaturiko dokumentuen jabetza eta balioasuna egiaztatu beharko ditu.**

## **2. GUTUN-AZALA: PROIEKTU TEKNIKOA**

Eskaintzaileek PROIEKTU TEKNIKOA aurkeztuko dute, Programa bakoitzarentzat berezia:

1. Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa. Lehen urteko eta bigarren urteko jarduerak bereizi egin behar dira.
2. Eskolatzeko Osagarriaren programa.

Proiektu hauetan ahalik eta zehaztasun handienaz deskribatu behar dira hezkuntza-programa hauek antolatu, kudeatu eta garatzeko modua, premia horiek asetzeko aurrez ikusitako baliabide eta plangintzaren egokitasuna justifikatuz.

Proiektu hauetan ondoren zehazturiko edukiak sartuko dira gutxienez, ahalik eta argien aurkeztuta, dokumentuaren egituratze egokiarekin eta zehaztasun maila handienarekin egon behar dute, bere ebaluazio zuzena egin ahal izateko moduan.

- Proiektu pedagogikoa: helburu orokorrak, metodologia eta ebaluazio-prozedurak.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Prestakuntza-planaren eskema, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak DBHrako proposaturiko irakasgaien programazioa eta egutegia kontuan izan beharko dituen.
- Ikaslearen koordinazio- eta jarraipen-plana, jatorrizko ikastetxearen eta harrerakoaren artean ezarria, ikastetxe bakoitzeko erreferentziazko pertsonak zehaztuz.
- Hezkuntza- eta lan-orientazioko Plana.
- Eskaintzaileak jarritako giza baliabide eta baliabide materialen zerrenda.
- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programako bigarren urteko praktika-programaren xehetasunak.
- Eskolaz kanpoko jardueren xehetasunak.
- Ikasturtean ikasle bakoitzari emango zaizkion banako laguntzen xehetasunak.
- Kontratu honetan zuzendaritza, irakaskuntza eta administraziorako esleituriko lantaldearen Curriculum zehatza.
- Lan-talde horren euskara-ezagupenen egiaztatgiriak.
- Ikasturteko egutegi- eta ordutegi-proposamena irakasleentzat eta ikasleentzat.

### 3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Baldintza Agiri honen I ERANSKIN gisa agertzen den ereduari estu atxiki beharko zaio proposamen ekonomikoa, eta eskaintzaileak eskainitako prezioa sartuko da bertan.

Agiri honetan idatziz jarritako prezioetan lanak kontratatu eta gauzatzeak eragindako edo eragingo dituen gastu guztiek egon behar dute sartuta eta, zehatzago esanda, ondorengo hauek:

- Kontratuaren lizitazio- eta formalizazio-gastuak, hala badagokio.
- Kontraturiko prestazioa betetzeko esleipendunak zertu beharreko gastuak: kontraturiko prestazioa, orokorrak barne, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, saiakuntzak, joan-etorriak, bere ardurapeko langileen lansari eta dietak eta Baldintza Agiri honetan ezarritako gainerako guztiak.
- Era guztietako zergak, BEZ barne, eta kontratuak iraun bitartean ezartzen edota aldatzen diren beste guztiak.

Kontzeptu horietako batere ezingo da gero aparteko kontzeptu edo kontu-sail gisa sartu.

### 12. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Aipatu diren gutun-azal horiek Debagoieneko Mankomunitatearen Sarrera Erregistro Orokorrean —Arrasateko Nafarroa Etorbidea, 17— aurkeztu behar dira, 15 egun naturaleko epean lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.





Enkante-eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean eskaintza bidali duela jakinarazi Kontratazio Organoari telex, telefax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek ez badira betetzen edo bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko epea igaro eta gero hartzen bada, eskaintza ez da onartuko. Bestalde, aipaturiko dataren ondoren hamar egun natural igaro eta proposamena ez bada iristen, ez da inola ere onartuko.

2.- Gutun-azalak itxita, eta behar bezala sinaturik, aurkeztuko dira; gainean lehia parte hartzen duen enpresaren (edo enpresen) izena eta idazkun hau izango dute: **“Debagoieneko Mankomunitatearen Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Eskolatzeko Osagarriko Programak antolatu, kudeatu eta garatzeko proposamena”**.

Gutun-azal bakoitzean, gainera, edukia adieraziko da, honela:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA
2. GUTUN-AZALA: PROIEKTU TEKNIKOA
3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

### **13. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, garaiz eta behar bezalako forman iritsitako dokumentazioa (1. gutun-azala) kalifikatuko du Kontratazio Mahaiak, horretarako Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamendu Orokorren 81. artikuluan ezarrita dagoen bezala jokatzuz.

Horretarako, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruzko azalpenak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira, eta Erregelamenduko 22. artikulua xedatzen duen bezala aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Azalpenak edo agiri osagarriak eskatze hori Mahaiak ahoz adieraziko die interesatuei, eta aldi berean Mankomunitateko iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko da. Era berean adieraziko du Mahaiak aurkezturiko dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik baldin badago, kasu honetan hiru laneguneko epean eskaintzaileek zuzen ditzaten aurkituriko akats horiek.

Kontratazio Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Baldintza Agiri honetan ezarritako hautespen-irizpideetara egokitzen diren enpresak zein diren erabakitzeari ekingo dio, argi eta garbi adieraziz zein diren lizitazioan onartuak, zein baztertuak eta bazterte horretarako arrazoiak.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean —eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean, salbu eskaintzailearen batek bere eskaintza postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorren 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita— goizeko hamarretan irekiko dira 2. gutun-azalak, eta Kontratazio Mahaiari emango zaizkio baloratu ditzan barruan dauden dokumentu edo agiriak. Irekitze-ekitaldia jendaurrean egingo da, Debagoieneko Mankomunitatearen gela batean.



3. gutun-azala (proposamen ekonomikoa) ekitaldi publikoan irekiko da Mankomunitate honetako kontratatzailearen profilean ([www.debagoiena.com](http://www.debagoiena.com)) eta onarturiko enpresa eskaintzaileei bidaliko zaien jakinarazpenean adierazitako lekuan, datan eta orduan. Ekitaldi honetan balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleituriko balorazioaren berri emango da.

#### 14. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1. Kontratuaren esleipena ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari egingo zaio.
2. Kontuan izan beharreko irizpideak eta kontratuaren esleipenerako horien ponderazioa honako hauek izango dira:
  1. Proiektu teknikoa: 50 puntu.
  2. Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.

<p><b>1.- Proposamen ekonomikoa</b></p> <p>Honako balorazio-mekanikari jarraituko zaio:</p> <p>Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineal bidez egingo da, ondorengo bi puntu hauek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 (zero beherapena, puntuazio minimoa), eta puntu horiek mugaturiko zuzen horren segmentuaren barruan.</p> <p>Aipaturiko puntuak honako hauek dira:</p> <p><b>P1.-</b> Eskaintzarik merkeena (beherapen maximoa), horri puntuazio maximoa emango zaiolarik (<b>Pmax puntu</b>).</p> <p><b>P2.-</b> Lizitazio-tasari dagokiona, eta horri puntuazio minimoa emango zaio ondorengo formularen arabera:</p> <p>Lizitazio motari dagokion gutxieneko puntuazioa:</p> $P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max} \times 3)$ <p>(Bmax = Beherapen maximoa)</p> <p>Beherapena (B): lizitazio-tasaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea da, lizitazio-tasarekin zatituta.</p>	<p><b>50 puntu</b></p>
--	------------------------



#### DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

<p>P<sub>min</sub>-en kalkulua negatiboa izango balitz, P<sub>min</sub> = 0 hartuko da.</p> <p>Lehen zehazturiko zuzena lortzeko, onarturiko oinarritzko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.</p> <p>Printzipioz, neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapen gisa hartuko da aurkezturiko oinarritzko proposamen guztien beherapen-ehunekoen batez besteko aritmetikoa 10 unitatetan gutxienez gainditzen duena, eta hori neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapentzat jotzeko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da; horretan ustez inplikaturiko eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie aurrez, eta dagokion Zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere eskatuko da.</p>	
<p><b><u>2. Proiektu teknikoa</u></b></p> <p>Proiektu teknikoa honela balioetsiko da:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Oinarritzko Lanbide Heziketa Programaren Proiektua: 40 puntu.<ul style="list-style-type: none"><li>Hezkuntza-proiektua: 24 puntu.</li><li>Giza baliabideak: 12 puntu.</li><li>Baliabide materialak: 4 puntu.</li></ul></li><li>Eskolatzeko Osagarriaren Proiektua: 10 puntu<ul style="list-style-type: none"><li>Hezkuntza-proiektua: 6 puntu.</li><li>Giza baliabideak: 3 puntu.</li><li>Baliabide materialak: puntu bat.</li></ul></li></ol>	<p><b>50 puntu</b></p>

## 15. ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenari jarraituz, aurkezturiko proposamenak, proportziogabetzat edo anormaltzat jo gabeak, beheranzko ordenan sailkatuko ditu, Baldintza Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

Kontratazio-organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileari eskatuko dio, hamar laneguneko epearen barruan, honako hauek aurkezteko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, kontratua gauzatzera dedikatu edo atxikitzen konprometitu den baliabideak benetan badituela egiaztatzen duten agiriak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko agiriak, eta behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duten agiriak.



Kontratazio-organoak dokumentazioa hartu ondorengo bost lanegunen barruan esleituko du kontratua.

## **16. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

Mankomunitateko organo eskudunak behin betiko esleipena egin eta hori jakinarazi ondoren, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu behar du esleipendunak gehienez ere hamabost laneguneko epean, behin-betiko esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatuta, eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara iristeko. Hala ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzea, dagozkion gastuak bere kontura izango direlarik.

Kontratistari egozteko moduko kausengatik kontratua ez bada aipaturiko epearen barruan formalizatzen, Mankomunitateak indargabetzea erabaki dezake, baita behin betiko bermea konfiskatzea ere.

Kontratua formalizatzeko ekitaldi berean eta hori izenpetzeaz gain, esleipendunak Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak ere izenpetuko ditu, horrela agertuz baduela horien berri eta ados dagoela.

Kontratua formalizatzea ezin saihestuzko baldintza izango da edozein ordainketa bideratzeko.

## **III. kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA**

### **17. KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK**

1. Kontratu hau betetzea kontratistaren arrisku eta benturara egingo da.
2. Onarturiko Baldintza Agiriei, aplikatu beharreko araudiari eta kontrataturiko lanak bezalakoei dagozkien arau teknikoei estu eta zorrotz jarraituz egin behar dira lanak.
3. Esleipenduna berak egiten dituen lanen eta prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da, baita kontratua betetzerakoan egiten dituen ez-egite edo omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioarentzat edo besterentzat dituzten ondorioen erantzule ere. Kontratistak berari egotz dakizkiokeen jardunengatik hirugarrengoei eragindako kalteen ordainak emango ditu.
4. Lan, Gizarte Segurantzza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu kontratistak



## **18. DATU PERTSONALAK**

Kontratua betetzeko tratamendu automatizatua duten datu pertsonalak erabili behar baditu enpresa esleipendunak, hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (datu pertsonalen babesari buruzkoak) eta hori garatzen duen araudiak ezarritakoa betez egingo da.

Kontratuari esker lortu dituen datu pertsonal automatizatuak Mankomunitateak agindutakoaren arabera tratatuko ditu enpresa esleipendunak, eta ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratuan agertzen den helbururako baizik, ezta beste pertsona batzuei jakinarazi ere, nahiz eta gordetzeko izan.

Behin kontratu-prestazioa bete ondoren, trataturiko datu pertsonalak Mankomunitateari itzuli behar zaizkio, baita izaera pertsonaleko daturen bat daukaten euskarri edo agiri guztiak ere.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren xedapenak bete gabe, beste helburu baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, horien tratamenduaren erantzuleztat joko da, eta horrela berak erantzun beharko du egin dituen lege-hausteei buruz

## **19. SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Kontratuaren xede den zerbitzu-ematearen eremuan segurtasun eta osasunaren erantzulea kontratista denez, aplikatzekoak diren arau juridikoak eta teknikoak beteko ditu.

Debagoieneko Mankomunitateak eskubidea izango du prebentzio-arloan egokia iruditzen zaion dokumentazioa eskatzeko kontratuak irauten duen bitartean.

## **20. EUSKARA**

Dokumentazio guztia (txostenak, oroitidazkiak, lan-adierazpenak, fakturak...) euskaraz aurkeztu behar du enpresa esleipendunak.

Euskarazko testuaren kalitatea: Euskarazko testuak argia eta ulergarria izan behar du. Horretarako, eta behar izanez gero, esleipendunak Mankomunitatearen laguntza eta argibideak izango ditu.

## **21. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK**

Kontratista izango da kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz eragiten diren kalteen erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 214. artikuluan xedatzen duenaren arabera.



## 22. TRESNERIA ETA BALIABIDE PERTSONALAK

Kontratastak bere proposamenean sarturiko eta, oro har, lanak ongi gauzatzeko beharrezkoak diren lantalde eta baliabide pertsonal egokiekin egin beharko ditu lanak.

Esleipendunak zuzendaritza, irakaskuntza eta administraziorako bere eskaintzan zehazturiko langileak jarriko ditu kontratu honetan. Esleipendunak proposaturiko langileen artean edozein aldaketa egiteko Mankomunitatearen alde aurretiko baimena behar da.

Halaber, esleipendunak behar diren langileak kontratatuko ditu era guztietako ordezkapenak egiteko: gaixotasun edo istripuengatik ezgai egoera, baimen, lizentzia, opor-egun edo behar bezala justifikaturiko beste absentzia batzuk.

## 23. BALIABIDE TEKNIKOAK

Kontratastak jarriko ditu kontratu honen xede diren lanak ongi egiteko behar diren baliabide materialak.

Mankomunitateak Baldintza Agiri honen III Eranskinean zehazturiko baliabide materialak jarriko ditu esleipendunaren eskura, kontratastak bere materiala erabiltzen duen baldintza berberetan erabiliko ditu, eta kontserbazio- eta garbitasun-egoerarik onenean mantendu beharko ditu.

Gainerako elementu materialak esleipendunak jarri beharko ditu.

## 24.- INSTALAZIO FINKOAK

Mankomunitateak esleipendunaren eskura jarriko ditu ondoren zehaztuko diren instalazio finkoak, Arrasateko Nafarroa Etorbideko 21ean, Zaldibar Eraiinean kokatuta daudenak. Gainerako instalazioak, behar baldin badira, esleipendunak jarriko ditu.

- Bost lantegi hornituta, inbentarioaren arabera, esleipendunaren esku utziko dira irakasgai teknologikoak eta praktikoak eman ditzan. Lantegiak honako hauek izango dira: Mekanika, Instalazio Elektrikoak, Iturgintza, Arotzeria, Sukaldaritza.
- Informatikako Gela.
- Lau ikasgela irakaskuntza teorikoa emateko.
- Liburutegia.
- Irakasleen eta zuzendaritzaren gela.
- Administrazio-bulegoa.
- Biltegia.
- Gizon-emakumeentzako komunak.
- Tresneria eta garbiketako materiala gordetzeko gela.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Instalazio finko hauen erabileratik eratorritako gastu guztiak (telefonoa, elektrizitatea, ura, zergak, konponketak, etab.) kontratistaren kontura izango dira.

Lizitatzailleak gela edo lokal horietan erreformak egin nahi baditu, Mankomunitateari aurkeztuko dizkio honek onespena emateko.

Esleipendunaren betebeharra da instalazio finkoen osagai diren elementu guzti-guztiak kontserbazio- eta garbitasun-egoerarik onenean izatea. Prebentziozko mantentze, garbitasun integral eta matxurak konpontzeko beharrezko lanak esleipendunak egin behar ditu.

Mankomunitatearenak diren instalazio finkoak ongi zaindu edo kontserbatzeko kontratistak duen betebeharra bermatzeko, Mankomunitateari bidezkoa iruditzen zaion esku-hartze teknikoaren mende egongo dira instalazio horiek.

Kontratua iraungi edo deuseztatu ondoren, Mankomunitateari itzuli behar zaizkion instalazio guztiak kontserbazio-egoerarik onenean eta ordaindu beharreko kargarik gabe egongo dira.

Mankomunitatearen kontrola gorabehera, instalazio finkoak zaintzea kontratistaren ardura izango da, eta instalazioen erabateko segurtasuna iraunkorki bermatzeko beharrezko elementuak jarri beharko ditu.

Enpresa Esleipendunak lokal eta instalazio guztiak Baldintza Agiri honen xede diren zerbitzuetarako soilik eta bakarrik erabili beharko ditu eta inola ere ezingo ditu erabili beste eginkizun eta lan partikular edo edozein eratako lanetarako, kontratu honekin zerikusirik ez badute. Hortik salbuetsita geratzen dira Mankomunitateak berak agindutako zerbitzu bereziak.

### **25. BAIMENAK**

Kontratistak bere kontura eta erantzukizunpean lortu behar ditu lanak behar bezala egiteko beharrezko baimen eta lizentzia guztiak, bere kargura izanik erakunde eskudunek jartzen dizkioten baldintza eta aginduak betetzea. Baimen, lizentzia edo oniritzi horiengatik tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk eskatzen direnean, horien ordainketa edo gordailua ere kontratistaren kargura izango da.

### **26. LANEN KONTROLA**

Lanak Debagoieneko Mankomunitatearen kontrolpean egingo dira. Mankomunitateak aginduak eman ahal izango dizkio kontratistari, betiere ez baldin badute kontrataturiko prestazioen aldaketa suposatzen.

### **27. LANAK ONARTZEA**

Kontrataturiko lanak entregatu eta horietan akatsik ez bada aurkitzen, Administrazioak ofizios horiek hartu, likidatu eta, hala balegokio, eraturako bermea itzuliko du.



Entregaturiko lanek ez badituzte onartzeko beharrezko baldintzak betetzen, dagozkion aginduak emango zaizkio esleipendunari aurkitutako akatsak zuzen ditzan eta bere obligazioak bete ditzan horretarako ezarritako epean, eta agindu horiek bete arte ez zaizkio lanak onartuko. Emandako epean ez baditu aginduak betetzen, kontratua deuseztatu egingo da eta fidantza galdu.

## **28. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK**

Kontratu hau suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak.

## **29. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK**

Mankomunitateari dagozkio prerrogatiba hauek: kontratua interpretatzea, hori betetzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzea, interes publikoagatik aldatzea, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak ezarritako muga barruan eta betebeharrak eta efektuen arabera.

Horretaz hartzen diren erabakiek administrazio-bidea bukaraziko dute, eta berehala betebeharrekoak izango dira.

## **30. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Hauek izango dira Kontratazio Mahaia osatuko dutenak:

### Mahaiburua:

- Inazio Azkarragaurizar Larrea, Mankomunitateko lehendakaria

### Mahaikideak:

- Igor Ezpeleta Oregi, Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordeko lehendakaria
- Koldo Azkoitia Zubizarreta, Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko arduraduna.
- Ander Elortondo Bergaretxe, Mankomunitateko kontu-hartzailea.
- Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko idazkaria.

Idazkaria: Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko idazkaria

**EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2015eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 30ean.**

**IDAZKARIA**

**Izpta.: Belen Txintxurreta**





## ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA

..... jaunak/andreak (adinez nagusia,  
.....(e)n bizi dena eta N.A.-zka. .... duena)  
.....(r)en izenean eta ordez (honek egoitza soziala  
.....(e)n eta CIF-IFK-zka. .... duelarik) zera

### AZALTZEN DU:

- Lehena.- Ezagutzen dituela Debagoieneko Mankomunitatearen Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Eskolatzeko Osagarriaren Programaren antolaketa, kudeaketa eta garapen-lanak kontratatzeko Administrazio Klausula Partikularrak, Baldintza Teknikoak eta gainerako dokumentazioa, berariaz onartu eta oso-osorik beteko dituelarik.
- Bigarrena.- Bere erantzukizunpean adierazten duela enkantean hartzeko eskaintza egiten duen enpresa (enpresa lizitatuak) ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta, behar hainbat gaitasun juridiko eta bitarteko badituela aipaturiko lanak egiteko eta betetzen dituela kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak
- Hirugarrena.- Aipaturiko zerbitzua prezio hauetan ematera konprometitzen dela, prezioetan sartuta daudelarik kontzeptu guztiak: zergak, gastuak, edozein zerga-eremutako tasak eta arielak, baita kontratistaren industria mozkin ere:
- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programaren antolaketa, kudeaketa eta garapenagatik
    - Zuzendaritza, administrazioa eta irakaskuntza: .....€, gehi.....€, BEZaren %....-i dagokiona.
    - Zerbitzu, hornigai eta materialen erosketak kudeatzea: .....€, gehi.....€, BEZaren %....-i dagokiona.
  - Eskolatzeko Osagarriaren Programaren antolaketa, kudeaketa eta garapenagatik: .....€, gehi.....€, BEZaren %....-i dagokiona.

(Data eta sinadura)

Eskaintza honen xehetasuna atxikita doa.



## II. ERASKINA

Nik, ..... jaunak/andreak,  
helbidea ..... eta NAN-zka .....  
ditudalarik, eta neure gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna bete-betean izanik,  
neure izenean (edo ..... ren ordezkari gisa, honen helbidea  
..... da, eta IFK-zka .....), DEBAGOIENeko  
MANKOMUNITATEAREN OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO ETA ESKOLATZE  
OSAGARRIKO PROGRAMEN ANTOLAKETA, KUDEAKETA ETA GARAPENA  
kontratatzeko deituriko prozedura irekiaren berri izan dut, eta

### AITORTZEN DUT

Enpresa lizitatzailleak betetzen dituela legez ezarrita dauden baldintzak  
Administrazioarekin kontratuak egiteko eta esleipen-proposamena bere aldekoa izango  
balitz, konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoaren aurrean egiaztatzeko,  
kontratua esleitu baino lehen, Baldintza Agiri honen 1. gutun-azalean 11. Klausulan  
eskaturiko agirien jabetza eta baliotasuna, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 146.4  
artikuluaren xedatutakoaren arabera.

.....(e)n, 20....eko .....aren ...(e)an

Sinadura



### III ERANSKINA: KONTRATISTAREN ESKU UTZITAKO MATERIALEN ZERRENDA

#### OROKORRA

PANTALLA PROYECTOR NOVO	1
PROYECTOR BENQ MP622	1
PC DELL	5
PC DELL OPTILEX INTER CORE	7
PORTATIL FUJITSU T3200	1
PORTATIL DELL VOSTRO 1510	2
TV LE37C60 SAMSUNG 37"	1
PUERTA DE EMERGENCIA	1
PC DELL OPTILEX INTEL CORE	8
PC SOBREMESA	2
MONITOR P.BELL	4
DISCO DURO 500 GB	1
DISCO DURO	1
SILLAS CON PALA	20
CARRO TRANSPORTE	1
TV LED SAMSUNG	1
SERVIDOR	1
SILLON DIRECT. MAIN	2
SILLAS	90
IMPRESORA OKI 3400	1
IMPRESORA OKI C301dn	1
SCANNER EPSON 3490	2

#### ELEKTRIZITATEA

TALADRO	3
MESAS PLEGABLES	15
PISTOLAS AIRE CALIENTE	2
KID DOMOTICA	1
MUEBLE TAQUILLAS	1



### **SUKALDARITZA**

FRIGORIFICO ASPES	1
CAMPANA ASPES	1
MICROONDAS FAGOR	1
ASPES HORNO+PLACA	1
HORNO+MESA HORNO	1
PC ALL IN ONE	1
FRIGORÍFICO (ALMACÉN)	1
BATIDORA INDUSTRIAL SAMMIC	1
MENAJE	

### **MEKANIKA**

TALADRO	2
SIERRA DE CALAR	1
TALADRO PERCURSION	1
COMPRESOR	1
MICRO FRESADORA MF70	1
TALADRADORA BANCO TBH	1
MUEBLE TAQUILLAS	1
ESCALERA TELESCOPICA	1
ATORNILLADOR HITACHI	1
TORNO OPTIMUN	3
FRESADORA FORTEX	2
SIERRA MECÁNICA BELFLEX	1
TALADROS DE COLUMNA	2
ESMERIL	1

### **OSAGARRIA**

MAC ORDENAGAILUA	1
ANDAMIOS	1
CEPILLADORA	1
SIERRA CINTRA VERTICAL	1
SIERRA	1
ATORNILLADORA SIN CALBE	1
CORTA CESPED STERWINS	1
CORTA BORDES STERWINS	1



## **ITURGINTZA**

ESTANTERIAS RIGIDAS DESMONT.3

MÁQUINA ROSCADORA 1

SOPLETES 3

ABOCARDADOR 2

CORTATUBOS 4

BOMBA COMPROBACIÓN 1

TALADROS 3

ROTAFLEX 2

EQUIPO SOLDADURA AUTÓGENA 1

MALETAS TERRAJAS ROSCADO TUBO 8